

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

Langile lan kontratudun finkoen behin betiko izendapena argitaratzea

Alkatearen dekretua, zeinaren bidez onesten baita Moreda Arabako Udaleko administrari laguntzaile plaza, zerbitzu askotarako behargin plaza bat eta garbitzaile plaza bat behin betiko izendatzea, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan.

Alkatearen 139/2024 Dekretua, 2024ko abenduaren 16koa.

Alkatearen maiatzaren 23ko 29/2022 ebazpenaren bidez onetsi ziren Moreda Arabako Udaleko administrari laguntzaile plaza, zerbitzu askotarako behargin plaza bat eta garbitzaile plaza bat lehiaketa bidez betetzeko oinarriak eta deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren esparruan. Ebazpen hori ALHAOn argitaratu zen, 62. zenbakian, 2022ko maiatzaren 30ean.

ALHAOn (147 zk., 2022ko abenduaren 23koa) osorik argitaratu ziren plaza horiek lehiaketa bidez jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri orokorrak eta espezifikokoak.

Alkatearen abenduaren 11ko 131/2024 Ebazpenaren bidez, onartutako izangaien behin betiko zerrenda eta epaimahaiaren osaera onetsi ziren.

2024ko abenduaren 13an, epaimahai baloratzailerak bildu zen, eta alkateari hau proposatu zion:

— Eva María Larión Navajas, María Rosario Pelaez Mosquera eta Alfredo Martínez Moralesi eskatzea aurkez dezatela, hamar egun balioduneko epean, hautaketa prozesu hau arautzen duten oinarrien 11. artikuluan adierazitako dokumentazioa.

Abenduaren 16an, jatorrizko agiriak aurkeztu zituzten, eta eskaeran aurkeztutakoekin bat zetozela egiaztatu zen.

Hau ere aurkeztu dituzte:

1. Zinpeko adierazpena edo hitzmatea, kargu publikoa betetzeko ezgaituta ez dagoela eta administrazio publikoaren zerbitzutik diziplina espediente bidez bereizita ez dagoela adierazten duena.

2. Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako bateraezintasun zioen eraginpean ez dagoela dioen adierazpena.

3. Datu Pertsonalen Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik eratorritako betebeharrak betetzeko eta beren lanpostua dela-eta eskura dituzten betebeharrak pertsonal guztien konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoa.

Aurretik adierazitakoarekin bat etorritik, eta indarreko legeriak eta, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 21.1.h) eta 102.2 artikuluek, Toki Araubidearen arloan indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren (TATB) 136. artikulua (2024-196 2024/11/15) eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak ematen dizkidaten eskumenak baliatuz. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- EVA MARÍA LARRIÓN NAVAJAS langile lan kontratudun finko izendatzea; eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrari laguntzailea; C2 taldea; maila: 18; hizkuntza eskakizuna: 1; derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31; lanaldia: partziala.

BIGARRENA.- MARÍA ROSARIO PELAEZ MOSQUERA langile lan kontratudun finko izendatzea; eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak (garbitzaileak); taldea: E; maila: 13, hizkuntza-eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe; lanaldia: partziala.

HIRUGARRENA.- ALFREDO MARTÍNEZ MORALES langile lan kontratudun finko izendatzea; eskala: administrazio berezia; azpieskala: zerbitzu bereziak (zerbitzu askotarako behargin); taldea: E; maila: 13, hizkuntza-eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe; lanaldia: osoa.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau jakinaraztea izendatutako izangaiei, eta errekerimendua egitea langile lan kontratudun finkoari dagokion lan kontratua sina dezaten. Kontratua 10 egun balioduneko epean sinatu beharko da, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

BOSTGARRENA.- Dekretu hau ALHAOn eta udal honen egoitza elektronikoan argitaratzea.

SEIGARRENA.- Udalbatzari ebazpen honen berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke udal honetako alkateari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritik, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabakiz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi edo isilbidez ezetsi arte.

Nolanahi ere, komenigarriago jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Moreda Araba, 2024ko abenduaren 16a

Alkatea

MARA GARCÍA DÍAZ DE CERIO